

COVID-19 araudia Aritzatalde kiroldegian.

- Araudiaren helburua da Aritzatalde Kiroldegiko langileak eta erabiltzaileak SARS-CoV2arekin kutsatzeko arriskuak minimizatzea.
- COVID-19 arautegia zuhertasun eta zorrotasun printzipioetan oinarritzen da, eta bateragarria izango da unean uneko araudiekin eta beharren arabera egokitzapenekin. Horretarako, Kirol Departamentuak eranskin gisa garatu eta arautuko ditu Aritzatalde kiroldegiko eremu bakoitzeko aldian aldiko bere prozedura eta beharrak. Aldaketa esanguratsuak diren kasuetan Alkatzaren dekretu bidez onartuko dira.
- Aritzatalde Kiroldegiko araudi orokorra eta goi organoek zehaztutako unean uneko COVID-19 araudiak osagarriak dira.
- Aritzatalde kiroldegiak COVID-19 diziplina araubide propioa izango du, betiere kiroldegiko araudi orokorreko zigor-araubidearen baitan. Arau-haustek, erabilera okerrak, desegokiak eta kalteak intzidentzia-erregistroaren bidez kudeatuko dira.
- Zerbitzuko langileek eskumena izango dute unean uneko interpretazioa eta esku-hartze edo egokitzapenak egiteko, egoerak horretara behartuz gero.
- Araudi hau aplikagarria da gainerako kirol instalazioetan ere.
- Erabiltzaile guztiak behartuta daude arauok zorrotz betetzera.

OROKORRA

1. ARITZATALDE COVID-19 KIROL PLANean zehaztuko dira instalazioaren irekiera, erabilera eta kontrolerako gai guztiak.
2. Une oro beteko dira osasun-agintariak jarritako osasun eta babes-neurriak.
3. COVID-19aren sintomak izanez gero ez etorri kiroldegira eta deitu zure osasun-zentzora.
4. Instalaziora maskarekin sartu behar da, eta arauak kontrakorik esaten ez duen bitartean uneoro erabiliko da. Maskara jantzita ekartzen ez duenari ez zaio sartzen utziko. Ariketa-eremuan goi organoen araudia aplikatuko da uneoro.
5. Kiroldegira sartzeko toaila bat ekarri behar da, norbere higieua, gainazalak eta materialak babesteko, uneoro eta salbuespenik gabe.

6. Kiroldegiko eremu bakoitzak aforo mugatua du, eta kopuru hori ez da inoiz gaindituko.
7. Gune batzuk itxita egongo dira COVID-19 osasun neurriak bete artean.
 8. Pertsonen arteko distantzia fisikoa arauak une bakoitzean finkatzen duena izango da.
 9. Kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeko derrigorrezkoa da erreserba egina edukitzea. Erreserbarik gabe ez da inor sartuko, neurriak arindu artean.
 10. Erreserbaren ordua errespetatu behar da, eta ezin da beste ordu-tarte batean etorri. Zorrotz betearaziko dira erreserba bakoitzaren sarrerako ordua, gehienezko iraupena eta irteerako ordutegia. Berau betetzen ez den aldi bakoitza intzidentzia gisa erregistratuko da.
 11. Eremu bakoitzak bere adin muga izango du.
 12. Gune bakoitzerako bereziki jarritako sarrera, irteerak eta zirkulazio-norabideak erabiltzea derrigorrezkoa da. Kiroldegiko jarraibideei, seinaleei, megafoniari eta karteletako mezuei kasu egingo zaie, zirkulazioa eta erabilera segurua izateko.
 13. Zerbitzuko langileek kontrolatuko dituzte sarrerak eta irteerak. Beharrezkoa bada erabiltzaileek beren burua identifikatu beharko dute nortasun agiria edo argazkia duen beste agiri ofizial baten bidez.
 14. Igogailua erabiltzeko baimena eskatu beharko da eta baimendutakoek soilik erabili ahal izango dute.
 15. Kiroldegi barruko atearak irekita egongo dira, kontaktuak minimizatzeko eta aireztapena errazteko.
 16. Bakarka egingo da kiroldegiko erabilera gune orotan, araudiek kontrakorik adierazi artean.
 17. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute, baina bertako langileari erakutsi behar diote eta honen oniritzia jaso, erabili aurretik. Oniritzirik gabe debekatua dago erabiltzea. Material hau ezin da kiroldegian jaso.
 18. Zerbitzu bakoitzak bere armairuak izango ditu, eta horiek erabili beharko dira.
 19. Ile-lehorgailuak ezin dira erabili.
 20. Aldagelek ere aforo mugatua izango dute, eta une oro errespetatuko da. Beteta baldin badago, txanda itxoin beharko da, distantzia fisikoa ziurtatuta.
 21. Aldagelak gehienez 15 minutuan erabili ahalko dira.
 22. Kirol klubek edo beste eragileren batek kirol instalazioak erabiltzeko ARITZBATALDE COVID-19 KIROL PLANA bete beharko dute. Horretarako, besteak beste kontingentzia-

plana aurkeztuko dute Udaleko erregistroan, eta Udalak

onartu eta baimendu egin beharko du jarduerarekin hasi aurretik.

23. Erabilera baimenak uneoro ikuskatuak izango dira. Eskatzaileak du eguneratzeko ardura eta unean uneko informazioa Udalarari helaraztekoa. Azken honen oniritzia ezinbestekoa da baimena berritzeko.
24. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.

ZIGOR ARAUBIDEA

25. Aritzatalde Udal Kiroldegiko araudia aplikatuko da uneoro, eta bere baitan, zigor araubidea.
26. Goi organoen unean uneko arauak, ARITZBATALDE COVID-19 KIROL PLANA edo zerbitzuko langileen esanak ez betetzeak arau-haustetzat hartuko dira.
27. Kirol Departamentuari baino ez dagokio arau-haustearen larritasuna zehaztea, hala badagokio ohartaraztea, eta, beharrezkoa bada, erabiltzaile-eskubidea aldi baterako kentzea. Halaber, berari dagokio diziplina-espeditentea zabaldu behar ote den zehaztea, eta, aurrera eginez gero, Udalarekin batera zigorra zehaztea.
28. Instalazioko zerbitzuen langileek ahalmena dute erabiltzaile arau-haustekak ohartarazteko eta unean bertan kanporatzeko, hitzezko ohartarazpenei jaramonik egiten ez badiote edo/eta testuinguruak horrela eskatzen badu.
29. Intzidentzien erregistroan apuntatuko dira erabiltzaileen arau-haustekak.
30. Hiru arau-hauste arinekin, ohartarazpena egingo zaio erabiltzaileari, eta, gertaerak horrela eskatuz gero, aldi baterako kenduko zaio erabiltzaile izateko eskubidea: gehienez ere hilabeteko epea.
31. Arau-haustea larria bada (maskara gabe kiroldegira sartu, langileei jaramonik ez egitea, iraintzea...) ohartarazpena egingo zaio erabiltzaileari, eta, gertaerak horrela eskatuz gero, aldi luze baterako kenduko zaio erabiltzaile izateko eskubidea: gehienez ere urtebete.
32. Arau-hauste larri bat baino gehiagorekin erabiltzaile-eskubidea behin betiko kentzeko eskumena du Udalak.

I.eranskina

HARRERA ZERBITZUA

1. Harrerako zerbitzua indartu egingo da.
2. Maskara derrigorrezkoa da, eta ezingo da inola ere kendu, mostradorean babesmanparak egon arren. Maskararik gabe ez da sartzen utziko.
3. Harrerara sartu aurretik eskuak garbitu behar dira, gel hidroalkoholkoa erabilita.
4. Arauak dioen pertsonen arteko distantzia fisikoa bete behar da.
5. Seinaleetan adierazitako zirkulazio-bideak eta mezuak derrigorrez bete behar dira.
6. Pertsona bakarrari egingo zaio harrera hitzordu bakoitzean, menpekotasuna dutenen kasuan izan ezik.
7. Harrerako hitzorduek 15 minutu iraungo dute, gehienez.
8. Tramitea amaituta, berehala irten behar da harreratik.
9. Ordainketak banku-txartelaren bidez edo helbideratuta egitea gomendatzen da; ahal dela ez da esku-dirurik erabiliko.
10. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.

II. eranskina

ERRESERBAK

1. Kiroldegira etortzeko erreserba-ordua eskatu behar da
2. Hitzordua eskatzeko abonatuak (www.kirola.zarautz.eus) helbidean on line, 943 00 51 23 telefonoan edo harreran bertan egiteko aukera izango dute, erreserba egiteko gehienezko eta gutxienezko aldien baitan.
3. Hamar eguneko sarrera dutenek telefonoz edo harreran bertan egin dezakete erreserba, gehienezko eta gutxienezko aldien baitan.
4. Abonatu ez direnek telefonoz edo harreran bertan egin dezakete erreserba gehienezko eta gutxienezko aldirik gabe, unean bertan.
5. Erreserbak gunea hauetan egin daitezke: Fitness gunea, igerilekuak (handia, ertaina, txikia), Aritzatalde eta squash frontoiak.
6. Egunean erreserba bakarra egin ahal izango da.
7. Ezingo da ordu tarte berean bi gune ezberdinetarako erreserbarik egin.
8. Erreserba-ordu bakoitzaren gehienezko iraupena eta irteera ordutegia ere zorrotz betearaziko da. Berauek betetzen ez direnaldi bakoitza intzidentzia gisa erregistratuko dira.
9. Hitzordu bat bertan behera uzteko 15 minutu lehenago egin beharko da, bestela ez erabiliztat emango da. Erabili gabeko erreserba bakoitza arau-haustetzat hartuko da, intzidentzia gisa erregistratuko da, eta zigor-araubidea aplikatuko zaio.
10. Erreserba-ordua baino 15 minutu lehenago zabalduko da atea eta orduan itxi. Harreratit sartzeko aukera egongo da gehienez ere 3 aldiz. Berandu egindako sarrera bakoitza arau-haustetzat hartuko da, intzidentzia gisa erregistratuko da, eta zigor-araubidea aplikatuko zaio.
11. Sarreran kiroldegiko langileek txanda bakoitzeko zerrenda egiaztatuko dute.
12. Txanda amaituta kiroldegitik atera beharko da (nahiz eta jarraian beste txanda bat erreserbatuta izan).
13. Fitnesseko txandak ordu eta erdikoa izango dira; ondoren 15 minutu egongo dira irteteko.
14. Igerilekuko txandak 45''koak izango dira; ondoren 30 minutu egongo dira irteteko.
15. Erreserba egitean jakin ahal izango da zenbat pertsonak erreserbatu duten eta zenbat plaza libre dauden.
16. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.

III.eranskina

FITNESS ZERBITZUA

1. Sartzeko adina: 16 urte beteta izatea.
2. Fitnes gunera sartzeko erreserba eduki behar da. Gehienezko aforoak mugatuko ditu erabilera plazak.
3. Fitness eremua lehenengo solairu osoan egongo da.
4. Solairua hiru zatitan banatuta egongo da: fitness kardio-tono, fitness kardio-bike eta luzaketa eremua.
5. Fitnessera sarrera lehen solairuko eskaileretara zuzenean sartzeko alboko atletik egingo da, eta irteera Araba kaleko eskaileretatik.
6. Sarrera eta irteera ibilbideak seinaleztatuta egongo dira, eta ezinbestekoa da jarraibideak eta araudia betetzea.
7. Segurtasuneko tarte fisikoa une oro errespetatu behar da, bai kiroldegiaren sarreran bai guneeetan bertan.
8. Puntuala izan behar da. Erreserba ordutegia baino 15minutu lehenago zabalduko da atea eta hitzorduan itxi. Harreratik sartzeko aukera egongo da gehienez ere 3 aldiz. Berandu egindako sarrera bakoitza, huts egitea, intzidentzia gisa erregistratuko da eta zigor araubidea aplikatuko zaio.
9. Asistentzia-zerrenda sarreran kontrolatuko da. Erabiltzaile bakoitzak bere burua identifikatu beharko du nortasun agiriaren edo argazkia daraman beste agiri ofizial baten bidez.
10. Instalaziora maskararekin sartu behar da, eta arauak kontrakorik esaten ez duen bitartean uneoro erabiliko da. Maskara jantzita ekartzen ez duenari ez zaio sartzen utziko. Ariketa-eremuan goi organoen araudia aplikatuko da uneoro.
11. Sartzeko derrigorrezkoa izango da eskuak desinfektatzea eta toalla ekartzea. Ez bada ekartzen, sarrera ukatu egingo da.
12. Kirola bakarka egingo da.
13. Debekatuta dago kiroldegiko langile ez direnek entrenamendu gidatuak egitea.
14. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute baina bertako langileari erakutsi behar diote eta honen oniritzia jaso erabili aurretik. Oniritzirik gabe debekatua dago erabiltzea. Material hau ezin da kiroldegian jaso.
15. Uneoro araututako distantzia fisikoa bermatuko da. Kirol-makinak segurtasun-tartea errespetatzeko moduan kokatu dira; debekatuta dago makinak mugitzea.

16. Saioan erabilitako materiala garbitu egin behar da, erabili ondoren. Norberak garbituko du erabilitako materiala, propio jarritako higiene-puntuetan.
17. Guneetatik atera baino lehen eskuak desinfektatu behar dira.
18. Aldagelen erabilera unean uneko araudi eta egoeren baitan definituko da.
19. Guztiz debekatuta dago instalazioko aldageletan bizarra kentzea edo ilea moztea.
20. Arropa ezin izango da aldagela barruan utzi; korridoreetan horretarako jarritako armairuetan utzi behar da.
21. Kiroldegira arropa egokia jantzita eta prest etortzea gomendatzen da.
22. Aldatzeko edo/eta dutxatzeko gehienezko denbora 15 minutukoa izango da.
23. Erabilitako arropa garbitzea gomendatzen da, erabiltzen den bakoitzean.
24. Hitzordu bat bertan behera uzteko 15 minutu lehenago egin beharko da, bestela ez erabiltzat emango da. Erabili gabeko erreserba bakoitza, huts egitea, intzidentzia gisa erregistratuko da eta zigor araubidea aplikatuko zaio.
25. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.

IV. eranskina

IGERILEKUAK

1. 10 urtetik beherako haur guztiek une oro berauetaz arduratuko den adin nagusiko pertsona batek lagunduta joan beharko dute.
2. Igerilekura sartzeko erreserba eduki behar da. Gehienezko aforoak mugatuko ditu erabilera plazak.
3. Igerilekura harrera eta kantxaren arteko atletik sartuko da, eta alde zaharretik irten.
4. Sarrera eta irteera ibilbideak seinaleztatuta egongo dira, eta ezinbestekoa da jarraibideak eta araudia betetzea.
5. Segurtasuneko tarte fisikoa une oro errespetatu behar da, bai kiroldegiaren sarreran bai guneeetan bertan.
6. Puntuala izan behar da. Erreserba ordutegia baino 15minutu lehenago zabalduko da atea eta hitzorduan itxi. Harreratik sartzeko aukera egongo da gehienez ere 3 aldiz. Berandu egindako sarrera bakoitza, huts egitea, intzidentzia gisa erregistratuko da eta zigor araubidea aplikatuko zaio.
7. Asistentzia-zerrenda sarreran kontrolatuko da. Erabiltzaile bakoitzak bere burua identifikatu beharko du nortasun agiriaren edo argazkia daraman beste agiri ofizial baten bidez.
8. Instalaziora maskararekin sartu behar da, eta arauak kontrakorik esaten ez duen bitartean uneoro erabiliko da. Maskara jantzita ekartzen ez duenari ez zaio sartzen utziko. Ariketa-eremuan goi organoen araudia aplikatuko da uneoro.
9. Igerilekurako oinetako egokiak ekarri beharko dira. Debekatuta dago zapatak eta kirol-oinetakoak erabiltzea igerileku ertzean edo aldageletatik igerilekura doan pasabidean. Txankletak erabiltzea derrigorrezkoa da, eta ezingo dira utzi ur-ertzean (uretatik aldentuta lagako dira).
10. Sartzeko derrigorrezkoa izango da eskuak desinfektatzea.
11. Igerilekura sartu aurretik dutxatzea derrigorrezkoa da.
12. Kirola bakarka egingo da. Kale bakoitzaren aforoa mugatua egongo da. Ezingo da kontaktu fisikorik egon, eta segurtasun-tarteak errespetatu beharko dira. Kale bakoitzeko aforoa ez da inoiz gaiturik.
13. Erabiltzaileek beraien material txikia ekartzeko baimena dute, baina bertako langileari erakutsi behar diote eta honen oniritzia jaso, erabili aurretik. Oniritzirik

gabe debekatua dago erabiltzea. Material hau ezin da kiroldegian jaso.

14. Igerileku handia eta ertaina bakarka igeri egiteko izango dira. Haurren kasuan gutxienez “igela” maila ziurtatu beharko da. Ordutegi zehatz batzuetan igerileku ertaina aisialdirako baimendu dezake instalazioko zuzendaritzak baldin eta horretarako aukera eta modua ziurtatuko badu.
15. Igerileku txikian segurtasun-tartea egongo da une oro pertsonen edo pertsona-multzoen artean.
16. Gune hezea eta termala itxita egongo da.
17. Soroslea ur-azalera guztia kontrolatuko duen guneren batean egongo da une oro.
18. Aldagelen erabilera unean uneko araudi eta egoeren baitan definituko da.
19. Guztiz debekatuta dago instalazioko aldageletan bizarra kentzea edo ilea moztea.
20. Arropa ezin izango da aldagela barruan utzi; korridoreetan horretarako jarritako armairuetan utzi behar da.
21. Igerilekuko arropa garbitzea gomendatzen da, erabiltzen den bakoitzean (bainujantzia, toalla...).
22. Zarauzko Udalak antolatutako jarduerak lehentasuna izango dute igerilekuko ontziak eta kaleak erabiltzeko eta erreserbatzeko.
23. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.

V.eranskina
ARITZBATALDEKO FRONTOIAK
(pilotalekua eta squash)

1. Frontoiak erabiltzeko erreserba eduki behar da.
2. Sarrera ate nagusitik egingo da, harreran erreserba konprobatuko dute eta ordainketa momentuan bertan egingo da.
3. Instalaziora maskararekin sartu behar da, eta arauak kontrakorik esaten ez duen bitartean uneoro erabiliko da. Maskara jantzita ekartzen ez duenari ez zaio sartzen utziko. Ariketa-eremuan goi organoen araudia aplikatuko da uneoro.
4. Segurtasuneko tarte fisikoa une oro errespetatu behar da, bai kiroldegiaren sarreran bai guneeetan bertan.
5. Puntuala izan behar da.
6. Kiroldegira arropa egokia jantzita eta prest etortzea gomendatzen da.
7. Aldagelen erabilera unean uneko araudi eta egoeren baitan definituko da.
8. Hitzordu bat bertan behera uzteko 15 minutu lehenago egin beharko da, bestela ez erabilizat emango da. Erabili gabeko erreserba bakoitza, huts egitea, intzidentzia gisa erregistratuko da eta zigor araubidea aplikatuko zaio.
9. Unean uneko erabilera definitzeko azken hitza zerbitzuko langileek daukate.